Euskal PEN hiru jauzitan

Literaturak ez du mugarik ezagutzen

Egileak
Laura Mintegi
Urtzi Urrutikoetxea

txalaparta
Euskal PEN
Basque PEN
pen
INTERNATIONAL



PEN EUSKAL BILKURA

Ibinagabeitia'tar Andima'k

Ogeitamar urte bai, INTERNATIONAL PEN, izen omentsua, mundua zear egan asi zitzaigunetik. Londres'tik bilkura orren otsandia ludia zear zabaldu eta edatzen asi zan, eta andiko deiari iarraituz erri geienetan idazleak bilkura berezietan elkartzen ziran. Ingland'eko elkargo nagusiari geroago itsasteko. Era ortara, INTERNATIONAL PEN elkargoak, bere adar lodiak legorra zear edatu zitun, enbor sendo baten inguru.

Zer ditugu ordea, P. E. N. iru letratxo oriek? Izen ori iru erdel-izenen aurreneko letratxoz borobildua duzute, ots, Poet, Essayst, Novelist, euskeraz, olerkari, idazle, eleberrigille edo nobelari. Lan oietan eta bestetsuetan lumaz ari diren langille oro bildu nai ditu. Lenik enderri edo erri bakoitzeko idazleak elkartuz, urrenik erri-arteko bilkura aundi baten bazkidetuz.

Eralguntza onen egiteko garaiena auxe duzute: lur zabaleko literatura guzien eta idazle ospatsuenen izen ta izanak ezagutarazi, eta elkarrekiko artuemanean ezarri.

Bere araudian dionez, elerti edo literaturak ez du mugarik, ezta ere politikarik. Gizonek gogo-antzez sortu lanak, erri-mugen gainetik daude: beaz idazlan aiek ezagutarazteak politikarik ezin dezake egari. Giza-gogoaren zitu garaienak barreatzea ordea, bear-bearrezko egitekoa duzute. Orra, labur, INTERNATIONAL PEN bilkuraren yo-muga.

Euskal idazleak, aspaldi ontan, atzerriko idazle batzarretatik aldenduta bizi giñan. Gure artean sortu idazlanen berri, Euzkadi'ko mugartean kokatu oi zan, oskol-zailaren barnean eltzaur-mami guria bezelatsu.

Zorionez, gurean ere idazleek lan aipagarririk erron dute, baita gizon azkarrik ere erne izan da. Zoritxarrez, ordea, aien ezagupidea etzan gure ibar eta landetatik kanpora egaldatu. Garaia genun, noizbait ere, oskola apurtu eta geure mami-guria arrotz-errietan erakusteko, beurena bezin goxo ta guria zala ikus zezaten.

Ekiñak eta ariak, beti ere ondoren ona. Ekin genion eta ari giñan, eta gure aleginek uste gabeko igali mardula bildu zuten. Iragana dagonillean, urtero oi dutenez, International Pen'go bazkideak, Edinburgo'n, Ezkozian, elkartu ziran. Ludi guziko bilkurek ordezkariak biali zituten. Biltzar artan, euskal idazleen naikaria batzar buruak azaldu zuen, eta batzarkide guziek, ao-batez, gure eskabidea onartu zuten. Geroztik, Pen Euskal-Bilkura, zugaitz edo orren kimu gertatu zan, eta laister abar sendoa izateko bidean egokitu.

Gure arteko batzarra deitu genun. Lur zabalean sakabanatutako eusko-idazleen Prantzia ta Amerika barna erauntsi gogo-

Euskal PEN hiru jauzitan

Euskal PENen historia hiru jauzitan

Euskaltzaindia sortu eta hiru urtera, 1921ean, *PEN International elkartea* sortu zen Londresen, hasiera batean PEN izen soilaz (*Poets*, *Essayists*, *Novelists akronimotik*). Denbora laburrean arin hazi zen elkartea, lau urtean 25 PEN zentro baitziren Europan, eta 1931rako Latinoamerikan eta Txinan ere bazituen taldeak. Egun, 150 zentro inguru dira 100 herrialde baino gehiagotan hedatuta, eta 25.000 inguru idazle biltzen ditu.

Euskaldunek 1950ean ekin zioten PEN zentroa sortzeari. Manuel de Irujok Luis Vilallongari gutunez azaldu zionez, iniziatiba Argentinan sortu zen. *Instituto Argentino de Estudios Vascos* eta *Ekin* argitaletxearen inguruan biltzen ziren idazleek plazaratu zuten PEN taldea sortzeko ideia, eta idazle haiek eratu zuten lehenengo PENkideen zerrenda. Horietariko batzuek osatuko zuten lehenengo zuzendaritza (Manuel de Irujo, Jokin Zaitegi, Justo Garate, Ixaka Lopez Mendizabal, Isidoro Fagoaga); baina baziren beste hainbat idazle edo kazetari izena eman zutenak, horien artean Bernardo, Mariano eta Jose Estornes Lasa anaiak, Andres de Irujo, Jose Antonio Agirre eta Jesus Galindez.

Laster, baina, beste idazle batzuk elkartu ziren proiektuan. Lehenik, Lapurdiko, Zuberoako eta Nafarroa Behereko idazleak elkartu ziren. Manuel de Irujok laguntza eskatu zion Manuel de Intxaustiri idazle gehiagoren izenak emateko, eta Intxaustik emandako zerrenda Irujok igorri zion Manu de la Sotari: Pierre Lhande, Louis Dassance, Etienne Salaberri, Piarres Lartzabal, Jean Diharce «Iratzeder» eta Jean Jauregiberri ditugu ezagunenak. Argentinan bizi ziren idazleek garrantzitsutzat jotzen zuten PEN Euskal Bilkuraren egoitza Euskal Herrian egotea, eta Manuel de la Sotaren etxean kokatu zen elkarte berria, Biarritzeko Etcheperdia helbidean.

Hego Euskal Herrian bizi ziren idazleei ez zieten gonbiterik egin. Andima Ibiñagabeitiak azaldu zituen arrazoiak Euzko Gogoa aldizkarian, 1951n argitara eman zuen artikulu batean:

> *Xubero'n Benaparra'n ta Laburdi'n ate ioka iardun genun, eta ateak iriparre ta txerarik goxoenaz iriki zitzaizkigun. Ezin aterik yo ordea, Napar, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian arkitzen diran idazleen baitan. Aintxe dauzkagu ainbeste idazle, ta onenak alajaña. Uzkur ginduzun, norbaitek gure oiuak politikatzat edo artuko ez ote zitun. Bildur giñan gure deiak idazle maiteen eskuetara ez edo ziran elduko. Ikara ere bai, idazleei okerrekorik gertatuko ez ote zitzaien. Ez gera erabe, izatez beintzat, bainan ez genion iñori ere kalterik egin nai.*

PENen ibilaldia laburra izan zen, halabeharrez. Zuzendaritzako kideak Parisen, Lapurdin eta Guatemalan zeuden, ez zuten sosik, ezta barne egiturarik ere. Epe laburrean iraungi zen Euskal PENen ibilera. 1987an berriz ekin zioten ekimenari eta laburra izan zen, berriz ere, bizialdia.

2004an, ordea, idazle talde batek tinko heldu zion PEN proiektuari, eta barneko egitura trinkotu zuen lehenik, aurreko bi bizialdietatik eskarmentua hartuta. 2004tik 17 urte joan dira eta sendo dirau Euskal PENek. Nork esango zion Manuel de Irujori, Euskal PEN Bilkura 1950ean sortu eta, 71 urte beranduago, bizirik egongo zenik, bera bezala Lizarran jaiotako idazle baten eskutik.

Laura Mintegi Lakarra
Euskal PENeko lehendakaria

← Andima Ibiñagabeitiak *Euzko Gogoa* aldizkarian argitaraturiko artikulua (II'garren urtea. 1951 gko. Uztailla-Dagonilla. 7-8' garren zenbakiak).

Euskal PEN Bilkuraren helburua eta onarpena nazioartean (1950)

Andima Ibiñagabeitiak *Euzko Gogoa*n argitaratutako artikuluan eman zuen aditzera Euskal PEN Bilkuraren helburua.


> *Euskal idazleak, aspaldi ontan, atzerriko idazle batzarretatik aldenduta bizi giñan. Gure artean sortu idazlanen berri, Euzkadi'ko mugartean kokatu oi zan, oskol-zailaren barnean eltzaur-mami guria bezelatsu.*
>
> *Zorionez, gurean ere idazleek lan aipagarririk erron dute, baita gizon azkarrik ere erne izan da. Zoritxarrez, ordea, aien ezagupidea etzan gure ibar eta landetatik kanpora egaldatu. Garaia genun, noizbait ere, oskola apurtu eta geure mami-guria arrotz-errietan erakusteko, beurena bezin goxo ta guria zala ikus zezaten.* (*Euzko Gogoa*, 1951, II. urtea, 7-8 zenbakia).

Helburua argi, PEN International-eko idazkaritzarekin jarri ziren kontaktuan, eta lehen-lehen unetik laguntza handia berenganatu zuten PEN Katalanaren aldetik. 1923an sortu zen PEN Katalana, munduan hirugarrena, eta Batista i Roca Kataluniako ordezkariak erraztu zituen harremanak Londresko zentralarekin.

Angel de Gondrak, Euzko Gobernuak Londresen zuen ordezkariak, bidali zizkion dokumentuak Hermon Ould PEN International-eko idazkariari. Luis Villalonga arduratu zen Biarritzen dokumentuak prestatzen, Manuel de Irujok Parisetik eskatuta: estatutuak, idazleen zerrenda, proiektua (hizkuntzaren garrantzia azpimarratuta) eta kidetze-inprimakia.

Edinburgon egin zen XXII. PEN Kongresua, 1950eko abuztuaren 22-28an, eta, Ibiñagabeitiak artikuluan zioenez, «*Biltzar artan euskal idazleen naikaria batzar buruak azaldu zuen, eta batzarkide guziek, ao-batez, gure eskabidea onartu zuten. Geroztik, PEN Euskal Bilkura, zugaitz eder orren kimu gertatu zen*». PEN Euskal Bilkura bozketarik gabe eta txaloaldiaren bidez onartu zen.

Espainiak ez zuen PEN talderik, ezta Portugalek ere. Aurreko urtean, 1949an alegia, Italiako kongresuan aintzat hartu zen Jorge Semprunen proposamena, eta Espainiatik erbesteratuta zeuden idazleek PEN taldea sortzea onartu zen. Hala, eskoziarrek Edinburgora gonbidatu zituzten bi idazle ezagun, bata katalana eta bestea espainiarra. Espainiarra Jacinto Benavente zen. Aurretik, gonbidapenaz galdetu zieten Salvador de Madariagari eta Carles Pi i Sunyer katalanari, eta biek esan zuten (bakoitzak bere aldetik) ondo iruditzen zitzaiela idazle katalana gonbidatzea, baina ez Benavente, «*por su conocido cretinismo*». Hala ere, eskoziarrek idazle biak gonbidatu zituzten kongresura, eta, protesta gisa, ez idazle katalana ez eta idazle espainiar emigratuak ere ez ziren Edinburgon azaldu.



Paris'en, 1950-grko. Azilak 16
11 Av. Marceau, Paris XVI

PEN CLUB BASQUE
10 Place Clemenceau
BIARRITZ

Yaun agurgarri:

"Pen Club Basque" elkargoaren bazkidetzat nire izena ere, gaurgero, yaso dezazutela arrenez eskatzen dizuet. Iñola ere elkargo orrek zitu ugari eta onurakorrik ekarriko al dio gure izkuntza maitagarriari. Agindu beti ere euskeraren onez izango diranetan

Agur Yauna

Ibiñagabeitia'tar Andima

Ibiñagabeitia'tar Andima

→ Andima Ibiñagabeitiak Euskal PENeko kide izateko 1950eko azaroaren 16an bidali zuen gutuna.

Kideen lehenengo bilera , Parisen (1951)


Edinburgon onartua izan eta hilabete batzuetara lehen bilerarako deialdia egin zuten Parisen, 1951ko martxoaren 24an, «11, Av. Marceau-n, Paris XVI, arratsaldeko 5 orenetan»; hain zuzen ere, «*Groupe Parlementaire Basque, Délégation d'Euzkadi*»ren egoitzan. Idazle askok adierazi zuten joan ezina, urrun bizi baitziren, eta joandakoen artean erabaki zuten nola osatu Zuzendaritza Batzordea eta Idazkaritza.

Andima Ibiñagabeitiak Sebero Altuberi eskatu zion buru izateko, eta Altubek, 72 urte betetzeko zegoela, honela erantzun zion Pautik, Pako Suduperi esker eskuratutako gutunean:

> *Ene adiskide on: Artu det illonen 2´gko zure karta. «Pen Euskal Bilkura»ren Komite Nagusiko burukide izatea ontzat artzen detan ziraustazu. Bai bein; baiña burukidetza orrek balekarke noizik-noizera ara edo ona norbera joan bear izatea, eta ola balitz, gaitz nuke kondizio ori betetzea, ene osasun makaltxo onek ezpaitit uzten joan-etorrietan ibiltzea.*
>
> *Or dezu ba nere erantzuna: baldin ene ezintza ori eragozpen ezpada, ontzat artzen det izentatze ori, bestela utzi egin bear. Dana-dala milla esker eskeintza orrezaz ooratu nauten lagun orori.*
>
> *Agur eta agindu*

Garaiko prentsan eta barneko dokumentazioan jasota gelditu zenez, idazle hauekin osatu zen PEN Euskal Bilkuraren lehenengo zuzendaritza taldea: Sebero Altube, Jean Elizalde, Henri Gavel, Justo Garate, Nicolas Ormaetxea «Orixe», Piarres Lafitte, Ixaka Lopez Mendizabal, Jokin Zaitegi, Michel Etcheverri, Xabier Iratzeder, Isidoro Fagoaga, Manuel Irujo, Xabier Landaburu eta Manuel de la Sota. Eta idazkari bi izendatu zituzten, Andima Ibiñagabeitia eta Jon Mirande.

↓ Sebero Altubek Andima Ibiñagabeitiari Pautik idatzitako gutuna, 1951ko apirilaren 5ean.



Bau'dik, 1951'gko Joriallak 5 74

Ibiñagabeitia'tar Andima jaunа = Paris

Ene adiskide on: Artu det illonen 2'gko zure karta. "Pen Euskal Bilkura"ren Komite Nagusiko burukide izatea ontzat artzen detan ziraustazu. Bai bein; baiña burukidetza orrek balekarke noizik-noizera ara edo ona norbera joan bear izatea, eta ola balitz, gaitz nuke kondizio ori betetzea, ene osasun makaltxo onek ezpaitit uzten joan-etorrietan ibiltzea.

Or dezu ba nere erantzuna: baldin ene ezintza ori eragozpen ezpada, ontzat artzen det izentatze ori, bestela utzi egin bear.

Dana-dala milla esker eskeintza orrezaz ooratu nauten lagun orori.

Agur eta agindu

Pautik

Demari eutsi ezinean (1954)

Hurrengo kongresua, XXIII.a, Lausanan izan zen, 1951ko ekainaren 22tik 28ra, eta ordurako euskal idazleek zailtasuna zuten norbait bidaltzeko ordezkari. Manu de la Sotari egin zioten eskaera.

> *«Querido amigo: aunque vislumbro su negativa, me parece indispensable el hacerle una proposición (…). En cuanto al financiamiento de su viaje, le voy a ser muy franco. No contamos con ni siquiera un franco, pero preveo que podremos hacer frente a los mismos si no ante por lo menos post partum».*

Ez da inon ageri ordezkaririk bidali zenik Suitzara.

1952an David Carver nazioarteko idazkari berriak pare bat gutun igorri zizkien idazkariei galdetzeko ea zer nolako jarduerak egin zituen PEN Euskal Bilkurak azken urtean, ez baitzuten euskal idazleen berri, eta txostena ari zen prestatzen Nizan gauzatuko zen XXIV. Kongresuari begira. Nizako kongresuan ez zen euskal ordezkaririk egon.

1953ko ekainaren 8-13 artean Dublinen eta Belfasten egin zen XXV. Kongresura ere ez zen joan euskal ordezkaririk. Eta 1954an Amsterdamen antolatu zenera ere ez.

1954an Andima Ibiñagabeitia Guatemalara joan zen Jokin Zaitegiri laguntzera *Euzko Gogoa* argitaratzen, eta, ordutik aurrera, galdu egin da PEN Euskal Bilkuraren arrastoa.



↑ Ezkerrean Andima Ibiñagabeitia, erdian Jokin Zaitegi, eta eskuinean Nikolas Ormaetxea «Orixe», Guatemala hiriko Santa Monica egoitzan, 1954an; *in* Velez de Mendizabal, J.M. (1981). *Iokin Zaitegi*. Izarra.

Euskal PENen bigarren bizialdia (1987)

1987an berriz sortu zen PEN Euskal Herrian; oraingo horretan, Euskal PEN Kluba izenaz. Idazle ezagunek osatu zuten taldea: Jean Louis Davant, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi», Bitoriano Gandiaga, Jose Azurmendi, Txomin Peillen, Joseba Sarrionandia, Eñaut Etxamendi, Laura Mintegi, Joxe Agustin Arrieta, Martin Ugalde, Edorta Jimenez, Koldo Izagirre, Patxi Zabaleta, Juan Mari Lekuona, Mikel Antza, Patri Urkizu, Manex Goienetxe, Xabier Mendiguren, Pablo Sastre, Xarles Bidegain, Josu Landa, Xabier Montoia eta Josemari Velez de Mendizabal.

Talde horrek bi urtez izan zuen jarduera Euskal Herrian eta nazioartean. Pablo Sastrek ordezkatu zuen euskal taldea 1987ko PEN kongresuan Puerto Ricon eta 1988an Seulen (Korea); eta Laura Mintegik 1988an hartu zuen parte PEN Ingelesak Cambridgen egindako bilkuran eta 1989an Maastrichteko LIII. Kongresuan.

Zenbait urtetan jarduerarik izan ez bazuen ere, PEN taldeak oraindik jaso zituen gonbiteak nazioarteko bileretan parte hartzeko. Horrela, Jon Kortazar egon zen Bartzelonako kongresuan (1992), PEN Galegoak Santiago Konpostelakoan antolatu zuen LX. Kongresuan (1993) eta Pragako PEN kongresuan (1994).

↓ Euskal PENen Zuzendaritza Taldea 2007ko irailaren 18an. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera, Asel Luzarraga, Urtzi Urrutikoetxea, Paul Bilbao, Teresa Toda, Laura Mintegi, Paddy Rekalde, Lutxo Egia eta Joseba Tobar-Arbulu. Asier Serrano falta da.



Euskal PENen hirugarren bizialdia (2004)

PEN Katalaneko Carme Arenas eta Carles Torner saiatu ziren euskal idazleak adoretzen PEN zentroa berriz sortzeko. *Euskaldunon Egunkaria*ren itxiera salatzeko PEN Katalanak kanpaina zabala antolatu zuen nazioartean 2003ko otsailean, eta ez zuten ulertzen nola ez zegoen euskal PEN talderik.

*Egunkaria*ko Martxelo Otamendi, Maite Gonzalez Esnal eta Laura Mintegi idazleak eta Euskal Idazleen Elkarteko Ana Urkiza eta Tere Irastortza Bilbon elkartu ziren katalanekin 2004ko otsailean, itxieraren lehen urteurrenean. EIEko ordezkariek ez zuten biderik ikusten elkarte berria sortzeko, baina idazle batzuek dema hartu zuten, eta 2004ko apirilaren 23an 60 idazlek erabaki zuten Euskal PEN hirugarrenez sortzea, Donostian egin zuten bileran.

Txomin Peillen izendatu zuten ohorezko lehendakari eta Laura Mintegi lehendakari. Beste zazpi idazlek osatu zuten Zuzendaritza Batzordea: Joxemari Iturralde, Eider Rodriguez, Lutxo Egia, Fito Rodriguez, Paddy Rekalde, Asier Serrano eta Teresa Toda. 2004tik 2021era hainbat idazlek osatu dute Zuzendaritza Batzordea; horien artean, Paul Bilbao, Juanjo Ispizua, Hasier Rekondo, Joseba Tobar-Arbulu, Gari Berasaluze, Itxaro Borda, Maialen Sobrino, Xabi Paya eta, bereziki, Urtzi Urrutikoetxea. Bera izan da PENen lehendakaria 2012tik 2021era, Laura Mintegi berriz lehendakari izendatu arte.

Apirilean taldea osatu, eta maiatzean PEN Katalanak Bartzelonara gonbidatu zuen lehendakaria, bertan bildu baitzen Idazle Espetxeratuen aldeko Batzordea, eta aukera egokia zen PEN International-eko ordezkariekin Euskal PEN taldearen birjaiotza antolatzeko.

Horrela, 2004ko irailean, Mintegi eta Iturralde, lehendakaria eta lehendakariordea hurrenez hurren, Tromso-ko (Norvegia) LXX. Kongresura joan ziren PEN International-en onespenaren bila. 1950ean bezalaxe, Euskal PEN zentroa aho batez onartu zen, bozketarik gabe eta txaloaldiaren bidez.

2004tik gaur arte, Euskal PENen ordezkariak kongresu guzti -guztietan izan dira, eta PENen lau batzordeetako bilera gehienetan ere hartu izan dute parte; bereziki, Idazle Espetxeratuen aldeko Batzordean eta Itzulpenaren eta Hizkuntza Eskubideen Batzordean, baina baita Bakearen aldeko Idazleen Batzordean eta Emakume Idazleen PEN Batzordean ere.

↗ *Euskaldunon Egunkaria*ren itxiera salatzeko Donostian egin zen manifestazioa 2003ko otsailaren 22an, egunkaria itxi eta bi egunera.



*Euskaldunon Egunkaria*ren aldeko ebazpenak nazioartean (2004)

PEN Katalanarekin batera, Euskal PENek *Egunkaria*ren aldeko hiru ebazpen aurkeztu ditu PEN International-eko kongresuetan. Lehena 2004an bertan izan zen, Euskal PEN taldea PEN komunitatean onartu zuten Tromso-ko kongresuan. Ebazpenak eskatzen zion Espainiako Gobernuari ikertzeko *Egunkaria*ren itxiera. Ebazpena aho batez onartu zen.

Beste bi ebazpenek ere PEN talde guztien onespena jaso zuten. 2005ean Bled-en egin zen LXXI. Kongresuan, PEN International-ek Espainiako Justiziari eskatu zion *Egin* eta *Egunkaria*ren prozesuak bertan behera uzteko, edo azkartzeko. Kontuan hartu behar da *Egin* 1998an itxi zutela eta epaiketa zazpi urte beranduago hasi zela, 2005ean. *Egunkaria*, ordea, 2003an itxi zuten, eta epaiketa 2010eko otsailean egin zen, kasu honetan ere itxieratik zazpi urtera.

Tokion 2010ean egin zen LXXVI. Kongresuan Euskal PENek aurkeztu zuen ebazpenak Espainiako Gobernuari eskatzen zion Martxelo Otamendi, Iñaki Uria, Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga askatzeko eta horietariko gehienei egindako torturak ikertzeko. PENeko kongresukideek ebazpena onartu zuten, eta PEN International-ek Espainiako Gobernuari igorri zion eskaera.

Urtez urte, idazle eta kazetari jazarrien defentsan (2004-2021)

PEN taldeen zeregin garrantzitsuenetakoa izaten da askatasunez adierazteagatik jazarpena jasaten duten idazle eta kazetarien defentsa egitea, eta Euskal PENek ere halaxe jardun izan du urtetan zehar.

2006an, esaterako, Iñaki Egaña historialari eta PENkidea New Yorkeko aireportuan atxilotu zuten, lur hartu eta berehala, eta zenbait orduren ostean Madrilera bidali zuten bueltan. Euskal PENek eta Estatu Batuetako PENek salaketa-gutuna bidali zioten Condolezza Rice AEBko estatu-idazkariari, eta Berlingo LXXII. PEN Kongresuan Egañaren aldeko ebazpena onartu zuten talde guztiek.

2007an zehar, euskal musikari batzuk zentsuratu zituzten, eta erasoak jasan zituzten; horien artean, Fermin Muguruza, Soziedad Alkoholika, Su Ta Gar eta Asier Serrano musikaria. Euskal PENek *Film on Freedom of Expression* proiektuarekin kolaboratu zuen, musikari jazarrien testigantzak hedatzeko ikus-entzunezko baliabidearen bidez.

Urte berean, Josetxo Rodriguez eta Javier Ripa *Deia* egunkariko umoristei babesa adierazi zien jasandako zentsuragatik.

2008an Euskal PENek jendaurrean eta nazioartean salatu zituen ETAk egindako atentatuak *El Correo* egunkariaren eta EITBren aurka. Era berean, Gorka Landaburu kazetariarekin batu zen,

Ken Saro-Wiwa nigeriarraren erailketa gogoan (2005)

Euskal PENek hainbat ekimen antolatu zituen Euskal Herrian bertan, mundu zabaleko kanpainen oihartzun egiteko. Errusiak Txetxenian egindako krimenak jaso zituen Anna Politkovskaia kazetaria Moskun hil zutenean, edo Hrant Dink armeniar kazetariaren hilketaren kasuan (Istanbulen, 2007an).

Etxeko ekimenek nazioarteko kanpainekin bat egin zuten uneetako bat izan zen Nigeriako Ken Saro-Wiwa idazle eta aktibista ogoniaren exekuzioaren hamargarren urteurrenean. Azaroan egin ohi den Idazle Espetxeratuaren Nazioarteko Egunean, ekitaldi berezia antolatu zuen Euskal PENek Bilboko Plaza Barrian. Nigerian Progressive Union elkarteko Leo Ogunleye lehendakariarekin elkarlanean, Bizkaiko hiriburuan bizi den nigeriar komunitateak omenaldia egin zion Saro-Wiwari, musikaz lagunduta haren poemak irakurriz, bai ingelesez, bai euskaraz.

Ogoni Herriaren Biziraupenerako Mugimenduaren burua izan zen Ken Saro-Wiwa; Niger ibaiaren deltan dagoen Ogoniland-en gertatutako txikizio ekologikoa salatu zuen, Royal Dutch Shell eta nazioarteko beste petrolio-ekoizle batzuen jardunaren ondorioz. 1994an atxilotu zuten, eta heriotza-zigorra ezarri zioten inolako bermerik gabeko epaiketa baten ostean. Urtebete beranduago, 1995eko azaroaren 10ean urkatu zuten Port Harcourt-eko espetxean, beste zortzi buruzagi ogonirekin batera.



↑ Ken Saro Wiwaren hilketaren 10. urteurrenean, Euskal PENek eta *Nigerian Progressive Union* elkarteko kideek Bilbon egindako omenaldia, 2005eko azaroaren 27an.

mehatxatuta zeuden eta bizkartzainekin ibili behar zuten berriemaileen errealitatea ezagutzeko. Landaburuk 2001ean bonba-gutuna jaso zuen bere etxean, eta zauri larriak jasan zituen.

2013 eta 2014 urteetan, atari digital batzuek zentsura jasan zuten, *Apurtu*, *Herrira* eta *Topatu* plataformek besteak beste, eta Euskal PENek urraketa horiek guztiak salatu zituen jendaurrean. 2013an salatu zuen, halaber, *Euskalerria Irratia* euskara hutsezko irratiari lizentzia ukatzea.

2009an, Asel Luzarraga PENkidearen kasu lazgarria izan zen. Wall Mapu herri maputxean bizi zela, Txileko poliziak atxilotu eta espetxeratu zuen, lau bonba ipini izana leporatuta, nahiz eta data haietan Luzarraga Txiletik kanpo egon zen. *Asel aske* plataformak mobilizazio handia egin zuen Euskal Herrian kasua salatzeko, eta Euskal PENek ahalegin diplomatikoak egin zituen Txilen, Temuco kartzelatik ateratzeko. Horrez gain, PEN International-en bidez mundu osora eraman zuen salaketa. Luzarragak 42 egun eman zituen kartzelan, eta zazpi hilabete etxean atxilotuta. Fiskalaren hasierako eskaera 15 urteko kartzela-zigorra izan bazen ere, azkenean, 220 egunetara zigortu zuten. Aurretik 251 egun eginda zituenez atxilo, Txiletik atera ahal izan zen 2010ean.

Idazle eta kazetari kurduak bidelagun (2008)

Euskal PEN taldea egonkortzen eta bere bidea sendo egiten ari zen urteak aurrera joan ahala. *Egin* eta *Egunkaria* kasuetan jasotako elkartasunaren garrantziaz ohartuta, Euskal PENek deliberatu zuen nazioarteko kazetari jazarrien defentsan aktiboki jardun behar zuela, eta berehala heldu zion Adnan Hassanpour eta Hiwa Butimar kazetari kurduen kasuari. Horrela, 2007an, biak ala biak Euskal PENen *ohorezko kide* izendatu zituen. Urte hartan, Irango erregimenak heriotzara zigortu zituen bi kazetariak, eta haien senideak laguntza eske ari ziren kasua nazioarteko eraman nahian, zigorra gauzatu ez zedin.

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean testigantza eman zuten Leyla Hassanpourrek, Adnanen arrebak, eta Hadi Butimarrek, Hiwaren anaiak, 2008ko ekainaren 16an. Nafarroako Legebiltzarrak ere hartu zituen bi kazetarien senideak 2008ko ekainaren 23an, eta alderdi guztiek ebazpena sinatu zuten bi kazetari kurduei elkartasuna adierazteko. Euskal PENek Idazluma saria eman zien bi kazetariei, eta prentsak luze eta zabal jaso zuen kurduen kasua, elkarrizketen bidez eta antolatu ziren hitzaldi eta mahai-inguruen berri emanda.

Nazioarteko presioak eman zuen fruiturik. 2008ko irailean, Auzitegi Gorenak bertan behera utzi zuen heriotza-zigorra, eta berriz epaitzeko agindu zuen. 2009an 15 urteko espetxe zigorra ezarri zioten Adnan Hassanpourri. 2016ko irailean askatu zuten, ia hamar urte preso egon eta gero.

→ Leyla Hassanpourrek, Adnan Hassanpourren arrebak, eta Hadi Butimarrek, Hiwa Butimarren anaiak, Eusko Legebiltzarrean azaldu zuten bi kazetari kurduen egoera 2005eko ekainaren 17an.

Basque Writing aldizkaria bidelagun (2008)



euskal pen kluba 2020-2 PEN International

Basque Writing 22

Joan Mari Torrealdai

LANGUAGE AND CULTURE UNDER THREAT

Photo: Jon Orbe/Foku

This issue of **Basque Writing** pursues two objectives. The first and most important is to honor the memory of Joan Mari Torrealdai, since we can categorically say that Basque culture was orphaned when he passed away on July 31, 2020. The second aim of this issue is to draw attention to the threats that minority languages and cultures face, using Torrealdai's career as a case in point.

What is local is universal, and we firmly believe that any act in support of a minority language also benefits the rest of the languages. While the tongues may be different, the threats minority languages face are remarkably similar.

Urtzi Urrutikoetxea says that Torrealdai was "a giant ant". Urrutikoetxea recently took the post of Chair of International PEN's **Translation and Linguistic Rights Committee** (TaLRC), and he therefore knows full well how tragic the situation of some minority languages is.

In **Urrutikoetxea**'s own words, *"We needed it much earlier, but it was not until the crime against Egunkaria was committed that, with the help from our Catalonian colleagues, we established Basque PEN. Thanks to the club, we have had the opportunity to make friends all around the world, first in our effort to raise awareness about the Egunkaria case, and then in our aspiration to, in collaboration with our Occitan counterparts, tell the world about the Basquephobic policies being developed by the governments of Navarre and France. Nevertheless, we have also learned and brought stories from other realities: the Kurdish people know perfectly well what it feels like to have a newspaper shuttered and to witness their cultural activists, researchers and journalists being arrested, tortured and killed, as happened to Musa Anter who once said "If my mother tongue is shaking the foundations of your state, it probably means that you built your state on my land" when he was kidnapped by Diyarbakir paramilitaries and found dead the following day.*

We intend to move around the world as you would, Joan Mari: with humility, avoiding lecturing altogether, and, whenever possible, with a smile on our face."

The three articles comprising this issue were published in the newspaper BERRIA as part of the special issue printed on August 1, the day after Torrealdai's passing.

Laura Mintegi
Basque PEN

1

↑ *Basque Writing* aldizkaria 2008. urtetik argitaratzen da ingelesez, nazioartean hedatzeko. Argazkian, 2020ko bigarren zenbakia, Joan Mari Torrealdairi eskainia.



2008an lehen zenbakia plazaratu zenetik, ibilbide luzea egin du Euskal PENek argitaratzen duen *Basque Writing* aldizkariak.

Helburu nagusia da ingelesez ezagutzera ematea euskaraz sortu eta gauzatzen diren literatura- eta kultura-proiektuak, uste baitugu euskal kulturak, bere txikian, baduela zer erakutsi mundu zabalean, eta, kultura zaharra izan arren, irudi dinamikoa, bizia eta modernoa eskain dezakeela munduan.

Haur eta gazte literaturari eskaini zion lehenengo monografikotik beste asko kaleratu dira, hala nola irakurle-kluben ugalketa, euskararen historia, erbestean egindako literatura, bertsolaritzaren dinamika bizia, itzulpengintzaren garrantzia, *Korrika*ren fenomenoa, poesian oinarritutako ekitaldiak, komikien indar eraldatzailea, Ikastolen eragina, hizkuntza txikian idaztea, Gernikaren 75. urteurrena, literatura eta gatazka politikoa, eta, 2020. urtean, pandemiak eragindako egoera.

Monografiko guztiek sorrarazi dute interesa, bai etxean, bai atzerrian. PENkide izan zein ez, euskal literaturako ahots garrantzitsuenen artikuluak bildu ditu aldizkariak; besteak beste, Mariasun Landa, Iban Zaldua, Itxaro Borda, Oier Guillan, Harkaitz Cano, Bernardo Atxaga, Karmele Jaio, Kirmen Uribe, Eider Rodriguez edo Lorea Agirre.

PEN Idazlumak: Txomin Peilleni ohore (2009)

2005ean hasita eta sei urtez, Euskal PENek *PEN Idazluma* izeneko aipamen berezia antolatu zuen, urte batean euskal kulturan nabarmendu zen pertsona baten omenez, eta hurrengo urtean nazioarteko perspektibarekin. Joan Mari Torrealdai izan zen *PEN Idazluma* jaso zuen lehena, apirilaren 23an, euskal kulturaren alde eta frankismoaren garaiko zentsuraren inguruan egindako lanagatik.

2006an Harold Pinter idazle britainiarrari eta Literatura Nobel saridunari eman zitzaion PEN Idazluma Londresko bere etxean. Kasu hartan, agerian utzi nahi izan zen Pinterrek literatura txokoratuen alde egindako lana; bereziki, *Mountain Language* antzerki-lanean hizkuntza kurduaren alde egindakoa.

2007ko apirilean Juan Jose Agirrek jaso zuen Idazluma, beneditarrek Lazkaon duten artxibategian 1973tik egindako lanagatik, ezinbesteko erreferentzia dena XX. mendeko euskal historia eta herrigintza ikertzeko.

2008an Adnan Hassanpour eta Hiwa Butimar kazetari kurduei eskaini zitzaien Idazluma. Beren senideek, Leyla Hassanpour arrebak eta Hadi Butimar anaiak, jaso zituzten Idazlumak Bilboko Kafe Antzokian egindako ekitaldi literario eta musikalean.

2009an omen egin zitzaion Txomin Peillen lehen Euskal PENeko sortzaile eta gaur egungoaren ohorezko lehendakariari, eta PEN Idazluma jaso zuen, adierazpen askatasunaren aldeko jarrera irmoagatik eta, baita ere, PENkide izan delako Euskal PEN sortu edo birsortu den hiru aldietan (1951n, 1987an eta 2004an).

Azken Idazluma 2010ean eman zitzaien *Azadiya Welat* egunkariko Eser Uyansiz zuzendariari eta Teresa Todari, *Egin* egunkariko zuzendariordeari. Bi egunkarien kasuan, gogor urratu zen adierazteko askatasuna, eta kazetariek zuzen-zuzenean pairatu zuten jazarpena. Teresa Todak hiru urte zeramatzan Kordobako kartzelan, eta Martin Garitano *Egin*eko kazetariak jaso zuen Idazluma haren izenean.



↑ Txomin Peillen Euskal PENeko ohorezko lehendakariak PEN Idazluma jaso zuen 2005eko ekainaren 12an. Peillen da PENen hiru bizialdietan egon izan den kide bakarra.

→ 2011tik, euskal emakume idazleek argitaraturiko lanak biltzen ditu Euskal PENek afixa batean, liburu-dendetan banatzeko, Emakunderekin lankidetzan. Argazkian, 2021eko afixa.

Euskal emakume idazleak ikusgai (2011)

2011ko martxoan, ekimen berria jarri zuen abian euskal emakumeek idatzitako literaturaren ikusgarritasuna sustatzeko, Emakunderekin elkarlanean eta argitaletxeen eta Elkar banatzailearen laguntzarekin. Martxoaren 8aren atarian, Euskal PENek afixa plazaratzen du aurreko 12 hilabeteetan emakumeek idatzitako liburuen azalekin, eta afixa zazpi lurraldeetako liburu-denda guztietako erakusleihoetan paratzen du bi astez gutxienez.

Urtez urte aldatuz joan da diseinua eta afixaren beraren edukia ere. Urte batzuetan, haur eta gazte literaturari egin zaio lekua; beste urte batzuetan, ordea, euskararako emakume itzultzaileei. Liburu-dendetara banatzen den afixaz gain, digitalki ere eskuragarri dago nahi duen edozeinentzat, gero eta gehiago baitira posterra eskatzen duten liburutegiak, elkarteak, ikastetxeak eta udaletako berdintasun-teknikariak.

Arestian esan bezala, Euskal PENek Nazioarteko Emakume Idazleen Batzordearen bileretan parte hartu izan du, eta Itxaro Borda izan da Euskal PENen ordezkaria. 2021etik aurrera, Itxaro Bordarekin batera Leire Bilbaok eta Arrate Egañak ere osatzen dute Euskal PENen Emakume Idazleen Batzordea.



Idazle samiekin elkarlanean (2012)

Urteotan guztiotan, Euskal PENek hainbat PEN talderekin izan ditu harremanak, baita bestelako herri, hizkuntza eta elkarte askorekin ere. Horietan berezienetakoak, ziur aski, sami idazleak izan dira. 2012an egon ziren lehen aldiz Euskal Herrian, Stein Torger Svala kazetariaren bidez. 30 idazle inguru heldu ziren Bilbora euskal kulturaren eta hizkuntzaren berri lehen eskutik izateko. Euskaltzaindia bisitatu zuten, Euskararen Etxea, Durangoko Azoka eta Martin Ugalde Kultura Parkea. Bilboko Kafe Antzokian dantza eta kantu ibili ziren, Edorta Jimenez PENkidearen eskutik Gernika eta Urdaibai ezagutu zituzten, Pasaian Hugo-Enea idazleen etxea bisitatu zuten, eta Donostian, Udalaren eskutik, 2016ko kultura-hiriburutzarako gonbidapena jaso zuten.

Esan eta egin, handik lau urtera berriz itzuli ziren, 2016an, orduko hartan Donostia erdigune hartuta. Etxepare Institutua, Bertsozale Elkartea eta Bagera elkartearekin batzartu ziren, Garabiderekin ere bilera egin zuten, eta luzerako dirauen harreman estua landu zen bi zentroen artean, Euskal PEN gidari.



↑ Idazle Samiak 2012an eta 2016an bisitan izan ziren Euskal Herrian, euskal kultura eta literatura-sistema lehen eskutik ezagutzeko. Argazkian, idazle samiak Donostian 2016an.

Idazle Espetxeratuaren Nazioarteko Eguneko ekitaldia (2012)

2012ko azaroan, mundu osoan Idazle Espetxeratuaren Nazioarteko Eguna egiten den egunetan, Euskal PENek ekitaldi entzutetsua egin zuen Donostiako Bulebarrean, Ataramiñe elkartearekin lankidetzan. Ziega bat eraiki zuten kale erdian, eta preso egondako idazleen testuak irakurri zituzten hainbat idazlek eta kazetarik; Fermin Munarriz, Laura Mintegi, Gorka Landaburu, Karlos Zurutuza, Mitxel Sarasketa, Iñaki Egaña, Fito Rodriguez, Martxelo Otamendi eta Juan Karlos Izagirre horien artean.



↑ Eider Rodriguezek Mikel Ibargurenen poemak irakurri zituen Idazle Espetxeratuen Nazioarteko Egunaren harira Donostiako Bulebarrean eraiki zen ziegan, 2012ko azaroaren 15ean.

→ Itxaro Borda eta Emakume Idazleen PEN Batzordeko kideak Reykjaviken (Islandia), 2013ko irailaren 10ean.

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politika Islandian (2013)

Euskal PEN hirugarrenez sortu eta zortzi urtera, 2012an, Laura Mintegik taldearen lehendakaritza utzi zuen, eta diruzain izendatu zuten; Urtzi Urrutikoetxeak hartu zuen lehendakaritzaren ardura, bederatzi urtez.

Islandiako kongresura bi ebazpen eraman zituzten PENkideek. Ebazpen batek salatu zuen Nafarroako Gobernuak euskararen aurka zeraman politika: Euskalerria Irratiari lizentzia ukatzen zion, ETBko emisioak Nafarroan jasotzeko zailtasunak jartzen zituen, eta etengabeak ziren irakaskuntza euskaraz emateko eragozpenak.

Beste ebazpenean Euskal PEN taldeak, talde okzitaniarrarekin batera, Frantziako estatuari eskatu zion Europako Kontseiluak 1992an egin zuen Hizkuntza Gutxituen aldeko Gutuna onar zezala, eta begirunea adieraz zezala bere lurraldean diren hizkuntzekin. PEN Okzitaniarrarekin egiten zuen lehen ebazpena zen, eta lehena, halaber, Frantziako estatuaren gainean.





↑ Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean Euskal PEN argitara eman zuen afixa, 2015eko otsailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan. Esteban Montorioren diseinua.

Teresa Todaren testigantza Idazle Jazarrien Bileran (2015)

Teresa Toda PENkidea eta *Egin* egunkariko zuzendariorde ohia espetxetik irten zen 2013ko azaroan. Jabier Salutregi zuzendariak ia bi urte gehiago eman zituen preso, baita Egineko Administrazio Kontseiluko kideek ere (Patxo eta Isidro Murga, Manu Intxauspe, Pablo Gorostiaga, Jesus Mari Zalakain, Jose Luis Elkoro, Karlos Trenor eta Joxean Etxeberria).

Amsterdamen bildu zen Idazle Espetxeratuen aldeko Batzordera eraman zuen Euskal PENek *Egin* kasuko bidegabekeriaren salaketa. Teresa Todak, Kordobako kartzelatik atera berri, luze eta zabal azaldu zuen *Egin* egunkariko kazetariekin eta Administrazio Batzordeko kideekin gertatutakoa, eta hartzaile guztiak txunditu zituen bere testigantzak. Batzorde horren buru izateko hautagai izatea ere proposatu zioten, baina bisa-arazoen ondorioz ez zuen urte hartako Quebeceko kongresuan parte hartzerik izan, eta bidaiatzeko legezko arazoek eragotzi zuten hautagaitza pertsonalki aurkeztu ahal izatea.

Ongi etorri aniztasunari eta euskara zubi (2016)

PENek oso ondo ezagutzen du zer den erbestea, etxetik joan behar izan diren idazleen defentsan jardunean baitabil ehun urtean. Euskal PEN ere erbestean sortu zen lehen aldiz. Gerren eta migrazio-mugimenduen ondorioz gertatzen ari diren fenomenoei erantzunez, Mendebaldeko gobernuen jarrerak gogortuz joan dira azken urteotan.

Hala, Euskal Herrian mintzatzen diren hizkuntzen mapa egin zuen 2015eko Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean (otsailaren 21ean), eta mapa hori geroztik ere erabili da hainbat alditan Euskal Herriko hizkuntza-aniztasuna erakusteko eta euskarak aniztasun horren ardatz gidari izan behar duela aldarrikatzeko.

2016an, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunak bat egin zuen Donostiako kultura-hiriburutzarekin. Euskal PENek «Ongi Etorri» izeneko jardunaldiak prestatu zituen asteburu osoz. Rhodi Mellek Siriako Rojava eskualde kurduko kazetaria Donostian izan zen, eta baita Aljeriatik ihesi joandako Kaissa Ould Braham idazle kabiliarra ere. Itziar Idiazabalek eta Garabide Elkarteko Txema Abarrategik hitzaldi bana eman zuten, eta errezitaldi musikatua egin zuten Itxaro Borda, Lutxo Egia eta Asier Serrano PENkideek. Ekitaldiari amaiera emateko, Petra Elserrek eta *Banaiz Bagara* elkarteak kantuan jarri zituzten entzuleak, eta jai-giroan erakutsi zuten aniztasuna altxorra dela eta euskara badela hizkuntzen arteko zubi.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa Donostian (2016)

«2016an Europako kultura-hiriburutzaren inguruan Donostian antolatu ziren gertaera garrantzitsuenen artean nabarmentzekoa da *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*. Kontuan hartu behar da 2016an 20 urte betetzen zirela Bartzelonan *Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala* sinatu zenetik. Helburua zen Bartzelonan 1996an onartu ziren hizkuntza-eskubideak bermatzeko urrats praktikoa egitea. Paul Bilbaok, Kontseiluko buru eta PENkideak, eta urte luzez PEN International-eko Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordean euskal ordezkariak, eta elkarte batzuek elkarlanean jardun zuten: ELEN (European Language Equality Network), Linguapax, ECMI (European Centre For Minority Issues), CIEMEN, UNPO, Kontseilua eta PEN International-a.

Kontseiluak ehunka ekarpen jaso zituen; Batzorde Zientifikoak orrazketa egin eta ikuspegi akademikoa eman zion, eta 185 neurri biltzen zituen dokumentua adostu zen azkenean. 2016ko abenduaren 17an, Europa osoko gizarte zibilaren ordezkari ziren eragileen aurrean, Joan Mari Torrealdaik *Bagara Nor* manifestu garrantzitsua irakurri zuen.

Euskal PEN buru-belarri ibili zen *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa* bultzatzeko nazioartean. Kontseiluaren eskutik Paul Bilbaok Europako txoko ugaritara eraman zuen dokumentua, eta Europatik kanpo PENkideen eskutik hedatu zen. Urtzi Urrutikoetxeak eta Laura Mintegik Johannesburgen dozenaka idazle afrikarren aurrean azaldu zuten egitasmo garrantzitsua, eta beste kontinente, errealitate eta kulturen ekarpenak jasotzeko beharra azpimarratu zuten. Hurrengo urtean, berdintsu egin zuten Indiako Bengaluru eta Pune hirietan, Chiapasen eta Manilan.

Lan sendo horren guztiaren zeharkako ondorio, PEN International-eko Itzulpengintza eta Hizkuntza Eskubideen Batzordea, lehendabizi Mazedoniako PENen zuzendaritzapean eta segidan beste 12 urtez Kataluniako taldeak gidatuta egon ostean, Euskal PENen ardurapean geratu da 2020tik, Urtzi Urrutikoetxea buru duela.

↓ Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak eta Xabi Paya Europako kultura-hiriburuko proiektu-zuzendariak *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa* eman zuten ezagutzera Donostian, 2016ko abenduaren 17an.

↓↓ *Eguna* egunkaria itxi eta 80 urtera, omenezko ekimenak egin ziren. Argazkian, Xabier Kintana (Euskaltzaindia), Irune Zuluaga (Sabino Arana Fundazioa), Iñaki Mendizabal, Odile Kruzeta, Urtzi Urrutikoetxea, Idurre Eskisabel eta Javi Onaindia kazetariak eta Laura Mintegi.





Eguna egunkaria, 80 urtera bizi-berritua (2017)

Garrantzitsua da aurretik izan zirenak gogoan izatea, nora joaten den jakiteko nondik etortzen den jakitea ezinbestekoa baita, bai eta noren lan eskergari esker heldu zen heldutako lekuraino ere.

1937. urtea une gorenetako bat izan zen euskarazko kazetaritzare-ntzat. Gerra betean sortu zen *Eguna* egunkaria. Gertaera haren 80. urteurrena omentzeko, ekimen zabala abiarazi zuten. Batetik, Euskaltzaindiarekin, Sabino Arana Fundazioarekin eta Bilboko Udalarekin lankidetzan, *Eguna* egunkaria gogorarazten zuen plaka jarri zuten Bilboko Posta kalean, egunkaria editatzen zen etxearen pareko zoruan. Egun bertsuetan hiru mahai-inguru antolatu zituen Euskal -tzaindiako egoitza nagusian eta beste mahai inguru bat Gasteizen.

Bestetik, eta katea ez dela eten azpimarratzeko, euskara hutsezko lehen egunkari hura lotu nahi izan zen egun euskara hutsez argitaratzen den *Berria* egunkariarekin. Halaxe, *Eguna* egunkaria bizi izan zen epe berean, urtarrilaren hasieratik ekainaren erdialdera arte, 80 urte beranduago, *Berria* egunkariak jaso zituen, egunez egun, 1937an argitara emandako albisteak. Lutxo Egiak egin zuen kronika horien hautaketa.

Eguna egunkariaren bizialdi laburra gogoan izateko, Euskal PENek lau hizkuntzatan azaldu zuen egunkariaren garrantzia lehen zenbakiaren azaleko facsimilearen atzealdean, eta diasporan diren 250 Euskal Etxe eta elkartetara bidali zuen Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

Pandemiak eraldatu arren, jardueretan etenik ez (2020)

2020an, SARS-CoV2 birusak mundu osoan pandemia eragin zuen, eta, PEN International-en legez, Euskal PENen jardunean ere erabateko eragina izan zuen.

Osasun-egoerak baldintza bereziak ezarriagatik, ez zen etenik izan jardueretan. Quebeceko PEN taldearekin eta Laval Unibertsitatearekin elkarlanean, jardunaldiak antolatu ziren Etxepare Institutuak Quebecen egitekoa zuen programa zabalaren barruan, eta, urtebete atzeratu arren, eutsi egin zion ekimena antolatzeari.

Memoriaren lanketa etengabean, Josu Martinezen *Anti* film indartsua erakutsi zen otsailaren 21ean, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean, zuzendaria bera lagun zela proiekzioaren ondoren telematikoki egindako mahai-inguruan, Gaizka Aranguren kazetari eta PENkideak aurkeztuta. Galesko PEN taldearekin senidetzea gauzatu zen, eta bi taldeak ekitaldiak prestatzen ari dira.

PENen barruan ere izan zen aldaketarik. Urtzi Urrutikoetxeak PEN International-eko Itzulpegintza eta Hizkuntza Eskubideen Batzordearen ardura hartu zuen, eta 2012tik izandako lehendakari kargua utzi zuen. 2021eko urtarrilaren 23tik Laura Mintegi da berriz ere Euskal PENeko buru, eta zuzendaritza berriko kideak dira Paul Bilbao, Xabi Paya, Urtzi Urrutikoetxea, Itxaro Borda, Gari Berasaluze eta Maialen Sobrino.

Euskal PEN Lehendakariak

Sebero Altube	1950-1951
Jean Louis Davant	1987-1989
Laura Mintegi	2004-2012
Urtzi Urrutikoetxea	2012-2021
Laura Mintegi	2021-egun

Zuzendaritza Batzordeko kideak

Laura Mintegi	2004-egun
Jose Mari Iturralde	2004-2009
Eider Rodriguez	2004-2009
Paddy Rekalde	2004-2009
Fito Bornaetxea	2004-2009
Teresa Toda	2004-2021
Lutxo Egia	2004-2021
Asier Serrano	2004-2021
Urtzi Urrutikoetxea	2009-egun
Paul Bilbao	2009-egun
Juanjo Ispizua	2009-2013
Hasier Rekondo	2009-2021
Petra Elser	2013-2021
Xabi Paya	2021-egun
Gari Berasaluze	2021-egun
Itxaro Borda	2021-egun
Maialen Sobrino	2021-egun

Azalean: Antoni Tàpies, *Libertat, Day of the Imprisoned Writer* 2003 (detailea)

Liburu hau 2021ean argitaratu da lehen aldiz, euskaraz eta ingelesez.

© **Euskal PEN eta Txalaparta**
ISBN: 978-84-18252-63-1
Lege gordailua: NA 1204-2021

Itzulpena
Beñat Azkargorta

Zuzenketa
Joshua Gamble

Argazkiak
Sabino Arana Fundazioa eta Euskal PENen artxiboa

Maketazioa
Monti Diseinu Grafikoa

Babesleak
Etxepare Euskara Institutua
eta Bizkaiko Foru Aldundia

Egileak

Laura Mintegi Lakarra euskal idazle eta irakaslea da. Narrazio laburrak eta bost nobela argitaratu ditu eta horietariko batzuk ingelesez, gaztelaniaz, nederlanderaz eta alemaneraz argitaratu dira. Irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saileko zuzendaria. Euskaltzaindiako kide urgazlea da. 2004an, beste idazle batzuekin batera Euskal PEN bersortu zuen, eta taldearen lehendakaria izan da 2004tik 2012ra arte eta berriz ere 2021etik aurrera.

Urtzi Urrutikoetxea euskal idazle eta kazetaria da, eta poesia eta narratibaz gain, esperientzia zabala dauka nazioarteko kazetaritzan. Hizkuntza gutxituen esparruan lan handia egin izan du, eta PEN egitasmo askotan parte hartu du. Euskal PENeko lehendakari izan da 2012tik 2021era bitartean, eta gaur egun PEN Internationaleko Itzulpengintza eta Hizkuntza Eskubideen Batzordeko buru da.

Bizkaia foru aldundia diputación foral

etxepare euskal institutua instituto vasco basque institute